



ERREFERENTZIAKO DOKUMENTUA, 2014KO APIRILAREN 30EKOA, ZEINAREN BIDEZ ZEHAZTEN BAITA INGURUMEN SAILBURUORDETZAK SUSTATUTAKO «HONDAKINAK SORTZEA SAIHESTU ETA HAI EK KUDEATZEKO 2014-2020 ALDIRAKO EAE-KO PLANA»REN INGURUMEN-JASANGARRITASUNAREN TXOSTENAREN ERAGINA.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I-A eranskinaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura bete behar dute hondakinak kudeatzearen arloko planek, baldin eta legez gerora ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren mende dauden proiektuak baimentzeko esparrua finkatzen badute, betiere herri-administrazio batek landu edo onartzen baditu eta lanketa eta onarpen hori legezko xedapen batek eskatzen badu.

Hondakinak sortzea saihestu eta hai ek kudeatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 aldirako plana hondakinen eta kutsatutako lurzoruen 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legeari jarraiki idatzi zen, eta lege hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Hondakinen Esparru Direktibaren transposizioa da (hemendik aurrera, HED) –direktiba hori hondakinen gainekoa da, eta indargabetu egiten ditu direktiba jakin batzuk–. Aipatutako 22/2011 Lege hori aplikatuz, hondakinak ezabatzeko eta balorizatze ko etorkizuneko instalazioen kokapenaren eta gaitasunaren irizpideak daude jasota planean.

Bestalde, 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege horrek ezartzen duenez, hondakinak kudeatzearen arloko esparru-plangintza eta plan gidatzaileak lantzeko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari dagokio.

Beraz, hondakinak sortzea saihestu eta hai ek kudeatzeko 2014-2020 aldirako EAEko plana ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende dago, bat datorrelako 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I.A eranskinean ezarritako baldintzekin. Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari dagokio prozedura bideratu eta ebaztea, 196/2013 Dekretuan adierazten denaren arabera¹, eta, halaber, 3/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erreferentziako dokumentu honen bidez, planaren ingurumen-jasangarritasunaren txostenaren eragina, xehetasun-maila eta espezifikotasun-maila zehazten dira, dagokien herri-administrazioei eta herritar interesdunei kontsulta egin ondoren; hai ei guztiei helarazi zaie 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluan jasotako hasierako dokumentua².

¹ 196/2013 DEKRETUA, 2013ko apirilaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena.

² 211/2010 DEKRETUA, 2012ko urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

EBALUATUKO DEN PLANEAN JASOTAKO PROPOSAMENA

Planaren helburu nagusia hondakin gutxiago sortu eta haien kudeaketa optimizatzea da, ezarrita dauden birziklapen- edo balorizazio-azpiegiturak ustiatuz eta hondakinak tratatzeko ahalmen hori gorenera eramanez³, hondakinak hondakindegietan uztearen kaltetan. Hondakinak sortu eta kudeatzean hierarkiaren printzipioa aplikatuz egingo da hori –jatorria HEDan du printzipio horrek–: *horretarako, lehentasuna eman behar zaie hondakinak sortzea saihesteari, berrerabiltzeko prestatzeari, birziklatzeari, bestelako balorizazio batzuei (energia sortzea barne) eta ezabatzeari.*

Planean ez dago jasota hondakinak kudeatzeko azpiegitura berriak sustatzea.

Hondakin ez-arriskutsuak birziklatu/balorizatzeko azpiegituretan aurkitu den defizitari dagokionez, zehazki pasta eta paper-oreen lohien eta ur zikinak tratatzeko lohien kasuan, defizit hori ekimen pribatu bidez konpondu beharko da. Aurreko hori horrela izanik ere, eraldatutako lurrak eta eraikuntza eta eraispenetako hondakinak kudeatzean (EEHak), beharrezkotzat jotzen da bideragarritasunaren azterketa bat egitea, ekimen publikotik azpiegiturak sustatzeko beharra zehazteko.

Planean, badago informazioa, kokalekua identifikatzeko kokapen-irizpideez eta etorkizuneko ezabatze-instalazioen edo balorizazio-instalazio nagusien ahalmenaz.

Ondorioz, planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren muina hondakinak kudeatzeko etorkizuneko instalazioak kokatzeko eta haien neurriak ezartzeko irizpideak egokitzea izango da. Irizpide horiek erabili beharko dira hondakinak kudeatzeari lotutako planetan eta proiektuan diseinatzean, proiektu horiek hondakinak sortzea saihestu eta haiek kudeatzeko 2014-2020 aldirako EAEko planean sartzen direnean.

KONTSULTAK EGIN ETA INTERESDUNAK IDENTIFIKATZEKO IZAPIDEA

2014ko otsailaren 7an eman zitzaion hasiera planeko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurari Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza honetan, eta hilabete bateko epea hasi zen, 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, dagokien herri-administrazioek eta herritar interesdunek egoki iriztitako oharrak egin zitzaizkien ingurumen-jasangarritasunaren txostenaren eraginaren, xehetasun-mailaren eta espezifikotasun-mailaren inguruan.

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren egoitzan eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean jarri zen eskuragarri planaren hasierako dokumentua interesdunentzat.

Halaber, dokumentu honen I. eranskinean jasotako erakundeei egin die kontsulta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza honek.

Erakunde hauen txostenak jaso dira:

- Eusko Jaurlaritzako Industria Garatzeko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza
- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saila
- Ekologistak Martxan Bizkaia elkarte
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Hirigintza Saila
- Asociación Española de Recuperadores de Papel y Cartón
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila
- Uraren Euskal Agentzia
- Federación Española de la Recuperación y el Reciclaje.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumenaren eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritza nagusia
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari

EBAZPENA

196/2013 Dekretuan ezarritakoarekin bat eginda, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari dagokio plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurak bideratzeko eskumena.

Espedienteko dokumentazioa aztertuta eta dagozkion herri-administrazioak eta herritar interesdunak identifikatuta eta haiei kontsulta eginda, 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako izapidea betez, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza honek

EBAZTEN DU

1.- Ingurumenaren arloko ondorioetarako soilik, «hondakinak sortzea saihestu eta haiek kudeatzeko 2014-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko plana»ren erreferentziako dokumentua egitea, zeina Ingurumen Sailburuordetzak sustatzen baitu, eta txosten hori jarraian datorrena izatea.

2.- Erreferentziako dokumentu hau Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzea.

TXOSTENA

Txosten honen edukia bat dator 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eranskinean ezarritakoarekin: erreferentziako dokumentuko edukia.

a) Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpideak

Ingurumen-jasangarritasunaren txostenean bereziki justifikatu behar da planean nola izan diren kontuan honako helburu hauek:

1. Natura-baliabideak eta hondakinak arduraz kudeatzea⁴.
Hondakinak kudeatzean ezingo da arriskurik sortu faunarentzat eta florarentzat, eta paisaia eta legez babestutako interes bereziko lekuetan ere ezingo da kalterik eragin⁵.
 - a. Lurzoruak artifizialtzeko prozesuak eta haiek hondatzeko erritmoak arian-arian murriztea eta nekazaritzarako lurra babestea.
 - Lurzoru antropizatuak berrerabiltzea sustatu eta horri lehentasuna ematea, lurzoru naturalak edo urbanizatu gabeak artifizialdu orde⁶.
 - Lurraldea birziklatzen eta hiriguneak, industriaguneak eta azpiegiturak berritzen laguntzea, lurzoru berriak okupatu orde⁷.
 - b. Natura eta biodibertsitatea babestea⁸.
 - Naturak arriskuan jar dezakeen lurzoruaren urbanizazioa geldiaraztea (uholde-arriskua, higadura, akuiferoen zama...), eta agrologia-gaitasun handikotzat katalogatuta eta babestuta daudenen okupazioa gelditzen joatea⁹.
 - Mehatxuak modu esanguratsuan murriztea, funtsezko ekologia-prozesuak eta ekosistemen bilakaera-ahalmena mantentzeko¹⁰.
 - Lurraldeko paisaia-baliabideen babesia sustatzea, eta bereziki aparteko paisaien eta kalitate eta naturaltasun handikoen kontserbazioa indartzea¹¹.
 - Habitatak lotzen dituzten ekologia-korridoreak zaindu eta oneratzeko¹².
 - Kostako eta itsasertzeko eremuak modu integral eta jasangarrian kudeatzea¹³. Itsasoko ingurumeneko kutsadura saihestu eta ezabatzea¹⁴.

⁴ 2. ingurumen-jomuga. 2002-2020 aldirako EAEko Ingurumen Estrategia

⁵ 7. artikulua. Pertsonen osasuna eta ingurumena babestea. Hondakinen politikaren printzipioak eta administrazioaren eskumenak. II. KAPITULUA. 22/2011 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuarena.

⁶ 2011-2014 ALDIRAKO IEP-A

⁷ 2011-2014 ALDIRAKO IEP-A

⁸ 3. ingurumen-jomuga. 2002-2020 aldirako EAEko Ingurumen Estrategia

⁹ Helburua: inguruneetan egiten diren substantzia arriskutsu eta kutsatzaileen isurketak murriztea. Aire, ur eta lur garbiak eta osasungarriak bermatzea. 1. ingurumen-jomuga. 2002-2020 aldirako EAEko Ingurumen Estrategia.

¹⁰ Helburua: ekosistemak, espezieak eta paisaia kontserbatu eta babestea. Natura eta biodibertsitatea babestea. 3. ingurumen-jomuga. 2002-2020 aldirako EAEko Ingurumen Estrategia.

¹¹ Helburua: ekosistemak, espezieak eta paisaia kontserbatu eta babestea. Natura eta biodibertsitatea babestea. 3. ingurumen-jomuga. 2002-2020 aldirako EAEko Ingurumen Estrategia.

¹² b4- .5.2. Ingurune fisikoko elementu eta prozesuen inguruko jarraibide orokorrak. 8.- Ingurune fisikoaren antolamendua. LAGetako lurralde-eredua.

¹³ Helburua: lurraldearen erabilera jasangarria lortzea. 4. ingurumen-jomuga. 2002-2020 aldirako EAEko Ingurumen Estrategia.

¹⁴ 92. artikulua. Babesaren helburuak. 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, 2001eko uztailaren 20koa, zeinak Uren Legearen testu bategina onartzen duen.

- Ekosistemen egoera hondatzea saihestu eta haiek babestu eta hobetzea: bai uretako ekosistemak eta baita ur-premiengatik zuzenean uretako ekosistemen mende dauden lurreko ekosistemak eta hezeguneak ere¹⁵.
 - Demarkazioko ur-masak egoera onean mantendu eta egokiro babestea lortzea¹⁶.
 - Lur azpiko uren kutsadura arian-arian murriztea bermatu eta gehiago kutsatzea saihestu¹⁷.
- c. Erabilerak edo jarduerak ingurunean egoki uztartu eta txertatzen diren aztertzea, mugikortasuna murrizte aldera.¹⁸
- EAEn kudeaketa-defizit bat diagnostikatu zaien hondakinak kudeatzeko azpiegiturak sortzen laguntzea, merkatu librearen, beregaintasunaren eta hurbiltasunaren printzipioak errespetatuz¹⁹.
 - Hondakinak ezabatzeko instalazioen eta etxeko hondakin nahasiak balorizatzeko instalazioen sare integratu bat jartzea, hondakinak hurbilen dagoen instalazio egokietako batean ezabatu edo balorizatu ahal izateko. Eta hori guztia egiteko, teknologia eta metodori egokienak erabiliko dira, ingurumenaren eta osasun publikoaren babes-maila handi bat ziurtatzeko²⁰.
- d. - Hierarkia, hondakinen ekoizpenean eta kudeaketan²¹.
2. Aire, ur eta lur garbiak eta osasungarriak bermatzea⁸.
- Hondakinak kudeatzean, ez da sortuko arriskurik uretan, airean edo lurrean, eta ez da eragingo ezerosotasunik zaratagatik edo usainengatik²².
- OE4- Ingurune garbi eta osasungarria bermatzea⁹.
- a. OP9- PM-10, PM 2.5, ozono eta NOx partikulen indize bat lortzea, kategorია onekoa eta % 95 baino gehiagoko onargarritasuna duena.
 - Airearen kalitatea hobetzeko proiektuak sustatzea, indizeak gainditzen diren eremuetan eta eremu sentikorretan.
 - b. OP11- Kutsatuta egon daitezkeen eta % 5ean titulartasun publikoa duten lurzoruetan, ikertu eta oneraturako azalera handitzea.
 - c. Zarata- igorpen kaltegarriak murriztea²³.

¹⁵ 92. artikulua. Babesaren helburuak. 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, 2001eko uztailaren 20koa, zeinak Uren Legearen testu bategina onartzen duen.

¹⁶ Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Hidrologia Plana

¹⁷ 92. artikulua. Babesaren helburuak. 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, 2001eko uztailaren 20koa, zeinak Uren Legearen testu bategina onartzen duen.

¹⁸ Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 LEGEaren 3.3 artikulua-zatiko c letra.

¹⁹ 2011-2014 ALDIRAKO IEP-A

²⁰ 9. art. Beregaintasuna eta hurbiltasuna. Hondakinen politikaren printzipioak eta administrazioaren eskumenak. II. KAPITULUA. 22/2011 Legea, 2011ko uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

²¹ 8. art. Beregaintasuna eta hurbiltasuna. Hondakinen politikaren printzipioak eta administrazioaren eskumenak. II. KAPITULUA. 22/2011 Legea, 2011ko uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

²² 7. artikulua. Pertsonen osasuna eta ingurumena babestea. Hondakinen politikaren printzipioak eta administrazioaren eskumenak. II. KAPITULUA. 22/2011 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuarena.

²³ Helburua: inguruneetan egiten diren substantzia arriskutsu eta kutsatzaileen isurketak murriztea. 1. ingurumen-jomuga. 2002-2020 aldirako EAEko Ingurumen Estrategia.

b) Geografia-esparrua

Hondakinak sortzea saihestu eta haiek kudeatzeko plan hori aplikatzeko geografia-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa da, eta ez da egiten lurralde, eskualde edo udalerriaren bereizketa espezifikorik.

c) Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen bereizgarria ingurumen-balio handiak dituzten eremuak eta oso humanizatuta dauden beste batzuk estu teilakatuta egotea da.

Planeko lurralde-eremuan, bereziki garrantzitsuak diren eremuak daude planeko ingurumen-ebaluazioaren ondorioetarako, beren natura-balio bikainengatik, beren kultura-balioengatik edo ingurumen-arriskuengatik –haietan, gaur egun edo etorkizunean, antzematen direnak–. Balio eta arrisku zehatz horiek bateratu egin behar dira hondakinak kudeatzeko azpiegituren etorkizuneko garapenarekin.

Aipatutako lehen eremu horien artean daude natura-ondarearen eta biodibertsitatearen gaineko oinarrizko legeria edo natura kontserbatzearen gaineko legeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorrek edo nazioarteko hitzarmenen ondorio diren ingurumen-babeserako araubideren bat duten inguru guztiak eta lurralde- nahiz hirigintza-plangintzaren ondorio den araubideren bat duten natura-inguruneak.

Horiei, kultura-ondarearen zati direlako kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo ondasunak gehitu behar zaizkie, eta ustezko arkeologia eremuak ere bai.

Halaber, eremu garrantzitsuak dira, urak babestearen ikuspuntutik, Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko demarkazio hidrologikoetako hidrologia-planetan ezarritako Babestutako Eremuen Erregistroko eremuak –BEE– eta BEEko harguneak babesteko perimetroak.

Ingurumen-arrisku garrantzitsuak dauzkaten eremuei dagokienez, kontuan izan behar dira 10 eta 100 urteko errepikatze-denboran urak hartzen dituen eremuak, 500 urteko errepikatze-denborakoez gain, eta baita Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko demarkazio hidrologikoetako Babestutako Eremuen Erregistroko eremu kalteberak eta eremu sentikorak ere.

Bestalde, kalitate akustikoari lotutako beste alderdi batzuk ere aintzat hartu behar dira, etorkizunean babes akustiko bereziko eremu edo egoera akustiko bereziko eremu izenda daitezkeelako. Era berean, kontuan izan behar da etorkizunean zenbait kutsatzailerentzat airearen kalitatearen atalaseak gaindituko diren esparruak antzeman daitezkeela, bereziki mugako balioak gaindituko balira.

Azkenik, kontuan izan behar dira, orobat, baina neurri txikiagoan, eremu hauek:

- Mehatxatutako Espezieen EAEko Katalogoan «babes bereziko», «kaltebera» edo «bakan» kategorietan dauden mehatxatutako flora- edo fauna-espezieen banaketarako interes berezia duten eremuak.
- Batasunaren intereseko habitatak dauden eremuak (92/43/EE Direktibaren I. eranskina), eta, bereziki, lehentasunezko habitatak eta/edo baso autoktonoak.
- Ekologia-korridoreen sareak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduarien Gidalerroetako Interes Naturalistikoko Eremuen zerrendan eta EAEko Natura Gune Garrantzitsuen Katalogo Irekian dauden eremuak.
- EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoaren eta paisaiaren katalogo eta gidalerroen arabera paisaia-balioagatik katalogatutako inguruak.

Horrelako eremuak bereziki kontuan hartzea proposatzen da planean, horrela horietan hondakinak kudeatzeko instalazioak jartzea eragozteko; horrekin, eta plangintza-maila handiarekin, ondorioztatzen da hasierako dokumentuan eremu garrantzitsu horiek identifikatzean lortu den xehetasun-maila egokia dela. Honako hau adierazi behar da bakarrik: eremu garrantzitsuen inbentarioa osatzean, atal honetan jasotako eremu-mota guztiak sartu behar direla.

Aldi berean, beren natura-balioengatik, beren kultura-balioengatik edo beren ingurumen-arriskuengatik gaur egun edo etorkizunean garrantzi txikikoak diren eremuak, zeinak egokiagotzat jotzen diren hondakinak kudeatzeko instalazioak jartzeko, sustatu egiten ditu planak: eraldatutako edo artifizialdutako lurzorua dituzten inguruak, aktibo ez dauden hondakindegia, industriako isuriak onartzen dituzten kolektoreetatik eta/edo ur zikinak arazteko estazioetatik hurbil dauden eremuak edo bide nagusietatik hurbil dauden lekuak.

d) Jardunak egiteko egokiak ez diren inguruak

Aurretik aipatu den bezala, hondakinak kudeatzeko etorkizuneko instalazioak jartzeko irizpide jakin batzuk daude planean, eta ez da sustatzen berariaz eta zehazki instalazio horietako bat ere.

Irizpide horiekin, funtsean, inguru batzuk definitzen dira, zeintzuek, beren natura-, paisaia- edo kultura-balio handiengatik, edo erakusten dituzten ingurumen-arriskuengatik, ezegokiak diren instalazio horiek jartzeko. Alderantziz, eraldatutako edo artifizialdutako lurzorua dituzten inguruak edo kolektore eta/edo hondakinurak arazteko estazioetatik hurbil daudenak erabiltzea sustatu nahi da.

Ondorioz, planean ez da aurkitu aldatu edo kendu beharreko jardunik.

e) Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Dagokien herri-administrazioei eta herritar interesdunei egin zaizkien kontsulten fasean, ez da jaso etorkizuneko ezabatze-instalazioen edo balorizazio-instalazio nagusien gaitasunaren inguruko proposamenik.

Hala ere, hainbat herri-administrazio egin dituzte iradokizunak hondakinak kudeatzeko instalazioak jartzeko irizpideen gainean, eta proposatu dute ingurumeneko zenbait elementu aintzat har daitezela edo, hala dagokionean, baliozta daitezela ingurumen-jasangarritasunaren txosteneko aukeren azterketan.

- Kultura Ondarearen elementuak, bai interes historiko-arkitektonikoa dutenak eta bai interes arkeologikoa dutenak, zeinak EAEko Kultura Ondareari buruzko 1990eko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen babesean egindako adierazpenetan jasotakoak edo gaur egun babesteko proposamena duten.
- Agrologia-balio handiko lurzorua
- Demarkazio Hidrografiko bakoitzeko erregistroan jasotako eremu babestuek (Kantauri Mendebaldeko DH, Kantauri Ekialdeko DH eta Ebroko DH).
- Arabako Lurralde Historikoko Ekologiaren eta Paisaiaren Loturaren Estrategian zehaztutako ekologia-koridoreen sarea.
- EAEko Eremu Hezeen Inbentarioan jasotako hezeguneak (2011ko maiatzaren 3ko Agindua).
- Aplikatu daitezkeen kalitate akustikoko helburuak.

Azkenik, hondakinak sortu, tratatu eta kudeatzeari lotutako azpiegitura berriak jartzeko irizpideen zerrendan erabilitako terminologia argitzea gomendatzen da.

f) Ingurumen-jasangarritasunaren txostenari erantsi behar zaion informazio eta dokumentazio gehigarria.

Ingurumen-jasangarritasunaren txostenean, 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia jasoko da. Alde horretatik, adierazi behar da espedientearen sartutako hasierako dokumentuan dagoeneko behar adinako xehetasun-mailarekin daudela jasota II. eranskin horretan eskatzen diren alderdietako asko, nahiz eta honako hauetan sakondu egin behar dela ikusi den:

- Hondakinak kudeatzeko instalazio berriak kokatzeko edo diseinatzeko erabiltzen diren irizpideak administrazio-izapideen printzipioetara egokitu behar dira: ez bakarrik hondakinak sortzea saihestu eta haiek kudeatzeko 2014-2020 aldirako EAEko planean sartzen diren proiektu zehatzen printzipioetara, baizik baita planean sartuta egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa bete behar duten proiektuak baimentzeko esparrua eratzen duten plan eta programen printzipioetara ere. Azken helburua hau izango da: irizpide horiek berdin erabili ahal izatea bai plan, programa edo proiektuen aukerak hautatzean eta bai kasu bakoitzean dagokion ingurumen-ebaluazioan.
- Aintzat hartutako elementuen eta ingurumen-intereseko eremuen artean, honako hauek sartu behar dira:
 - o Kultura-ondarearen zati direlako kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo ondasunak eta ustezko arkeologia eremuak.
 - o Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko demarkazio hidrologikoetako hidrologia-planetan ezarritako Babestutako Eremuen Erregistroko eremuak –BEE– eta BEEko harguneak babesteko perimetroak.



- o Arabako Lurralde Historikoko Ekologiaren eta Paisaiaren Loturaren Estrategian zehaztutako ekologia-korridoreen sarea.
- o EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoa.
- o EAEko Eremu Hezeen Inbentarioan jasotako hezeguneak (2011ko maiatzaren 3ko Agindua).
- o Aplika daitezkeen kalitate akustikoko helburuak.

g) Kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak eta ingurumen-jasangarritasunaren txostenean duten eragina.

Ingurumen-jasangarritasunaren txostenaren oinarri izan behar duten funtsezko alderdiek lotura izan behar dute jarraian ezartzen diren alderdiekin, eta kokatzeko, neurriak ezartzeko eta erabilgarri dauden teknika onenak aplikatzeko irizpideen bidez garatu behar dira:

- .- Natura- eta kultura-balio garrantzitsuak zaintzea: babesten diren balioak galtzea eragotziko duten eremuak babesteko irizpideak ezartzea.
- .- Ingurumen-arrisku berriak edo horiek larritzea saihestea.
- .- Natura, kultura edo ingurumen-arriskuaren ikuspuntutik garrantzi txikia duten eremuei balioa ematea –hondakinak kudeatzeko azpiegitura jakin batzuk jasotzeko sustatu behar diren eremuak dira–, eta planean bideragarriak diren eta ingurumenean ondorio kaltegarri gutxiago duten garapen-aukeren aldeko apustua indartzea.

Azkenik, komenigarria da zenbait irizpide ezartzeko ahalegin gehigarri bat egitea, zehaztasun handiagoarekin, bai eremuak baztertzeko eta bai sustatzeko: edonola ere, plangintzaren xede diren jardunek eskatzen duten zehaztasun-mailaren neurrikoa izan behar du ahaleginak. Beharrezkoa da, horretarako, hierarkia bera edo handiagoa duten planetan jasotako zehaztapenak berrikustea.

h) Natura 2000 Sareko ondorioak.

Planean, neurriak ezartzen dira Natura 2000 Sareko lekuetan hondakinak kudeatzeko instalazio berriak jartzea eragozteko. Gainera, gogorarazi behar da ez direla sustatzen instalazio zehatzak; beraz, ez da aurreikusten ondorio esanguratsurik leku horietan. Hori dela eta, ez da beharrezkotzat jotzen natura-ondarearen eta biodibertsitatearen 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.4 artikuluzatutako aipatzen den ebaluazio egokia egitea.

i) Adierazle kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak

Honako adierazle hauek erabili beharko dira aurreko atalean adierazitako helburuak kontuan zein mailatan hartu diren balioztatzeke, eta, ondorioz, kaltetuta egon daitezkeen ingurumen-balioetan hondakinak kudeatzeko etorkizuneko instalazioen kokalekuak eta gaitasunak izan duten eragina balioztatzeke:

1. Lurzorua zenbateko intentsitatearekin artifizialdu den.
 - a. EAEn habitat naturalek, erdi-naturalek eta naturalduek hartzen duten azaleraren ehunekoa.
 - b. Artifizialdutako lurzoruen ehunekoa.
 - c. Kalitatean edo kontserbazio-egoeran hobera egin duten habitat naturalen azalera.
 - d. Oneratutako lurzoruen azaleraren ehunekoa.
 - e. Titulartasun publikoko lurzoru kutsatuetatik, oneratutako lurzoruen azaleraren ehunekoa
2. Uren kalitatea²⁴
 - a. Ur kontinentaletara eta itsasertzeko uretara egindako isurketak
 - b. Uren kalitatearen indizea.
3. Airearen kalitatearen indizea.
 - a. PM-10 partikulen indizea.
 - b. PM 2.5 partikulen indizea.
 - c. NOx eta ozono kontzentrazioa.
 - d. OMEk gomendatutakoak baino handiagoak diren zarata-mailen eraginpean dauden biztanleak²⁵.

Planean, azkenean erabiliko den adierazle bakoitzerako, adierazi egin beharko da zein agintaritzak egin behar duen ikuskapena, eta desberdina izan daiteke kasu bakoitzean, plangintza-sisteman ikuskapen zein fasetan sartzen den; bestela, iraupena eta maiztasuna adierazi beharko dira, betiere adierazleari planak egiten dion ekarpen indibiduala identifikatu ahal izan dadin.

j) Dagozkion herri-administrazioak eta herritar interesdunak

211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, dagokien herri-administrazioen eta herritar interesdunen zerrenda agiri honen II. eranskinean jasotzen dena izango da.

k) Jendaurreko informazioa eta kontsultak

Informazioa eskuratzeko eta parte-hartze publikoa izateko eskubidea bermatzeko, plana bideratu bitartean, jendaurreko informazioaren izapidea eta II. eranskinean jasotako dagokien herri-administrazioen eta herritar interesdunen kontsulten izapidea bete beharko dituzte ingurumen-jasangarritasunaren txostenak eta plan horren aurretiazko bertsioak, araudiak zehazten duen dokumentazioarekin batera, gutxienez 45 eguneko epean.

²⁴ V. eranskina. EAEko goi-ibarretako ingurumen-adierazleak. 2002-2020 aldirako EAEko Ingurumen Estrategia.

²⁵ V. eranskina. EAEko goi-ibarretako ingurumen-adierazleak. 2002-2020 aldirako EAEko Ingurumen Estrategia.

Ingurumen-azterlan eta -agirietan, identifikatu egin beharko dira egilea edo egileak, eta adierazi egin beharko da haien titulazioa eta, hala dagokionean, araututako lanbidea, eta baita amaiera-data eta egilearen edo egileen sinadura ere, ingurumen-ebaluazioaren 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikuluan jasota dagoen bezala.

Alejandra Iturrioz Unzueta
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Directora de Administración Ambiental

Gasteizen, 2014ko apirilaren 30ean.

I. ERANSKINA

211/2012 Dekretuaren 9. artikuluaaren arabera kontsulta egin zaien dagokien herri-administrazioen eta herritar interesdunen zerrenda.

Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertzaren Demarkazioa

EUDEL

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zuzendaritza.

Industria Garatzeko Zuzendaritza. Ekonomiaren Garapeneko eta Lehiakortasuneko Saila.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.

Ekonomiaren Garapeneko eta Lehiakortasuneko Saila.

Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Etxebizitza Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Garraio Azpiegituren Zuzendaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

Uraren Euskal Agentzia. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

Ingurumen eta Hirigintza Saila. Arabako Foru Aldundia.

Nekazaritza Saila. Arabako Foru Aldundia.

Euskara, Kultura eta Kirol Saila. Arabako Foru Aldundia.

Herri Lan eta Garraio Saila. Arabako Foru Aldundia.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.

Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia - Nekazaritza Garatzeko Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.

Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia - Natura Baliabideen, Ehizarako Faunaren eta Arrantzaren Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.

Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.

Kultura Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.

Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia - Mendien Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.

Kultura Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Mendietako eta Natura Inguruneen Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Ekologistak Martxan.

Federación Española de la Recuperación y el Reciclaje.

II. ERANSKINA

211/2012 Dekretuaren 12. artikuluaen arabera kontsulta egin zaien dagokien herri-administrazioen eta herritar interesdunen zerrenda.

- Dagokien herri-administrazioak:
Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertzaren Demarkazioa
EUEDEL
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
Ekonomiaren Garapeneko eta Lehiakortasuneko Saila.
Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
Uraren Euskal Agentzia. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Ingurumen eta Hirigintza Saila. Arabako Foru Aldundia.
Nekazaritza Saila. Arabako Foru Aldundia.
Euskara, Kultura eta Kirol Saila. Arabako Foru Aldundia.
Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia - Nekazaritza Garatzeko Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.
Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia - Natura Baliabideen, Ehizarako Faunaren eta Arrantzaren Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.
Kultura Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia - Mendien Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.
Kultura Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
Mendietako eta Natura Inguruneen Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Herritar interesdunak:
Ekologistak Martxan
Federación Española de la Recuperación y el Reciclaje.